

## 15. INFORMAZIO FITXA GALDAMES-ATXURIAGA-EL POBAL BIDE BERDEA

### KOKALEKUA

#### Udalerria

Muskiz

#### Udalerriaren kod.

071

#### Eskualdea

Bilboaldea

Galdames

037

Enkarterri

#### Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

#### Orriak

06110

06118

06126

### FITXA TEKNIKOA

#### Homologatua

EZ

#### Gutxi gorabeherako denbora

2 ordu

#### Gehieneko desnibela (m)

140

#### Luzera (km)

6,3

#### Zailtasuna

Erraza

#### Trazatu mota

Lineala

#### Ibilbidearen hasiera

Atxuriaga parkea (Aceña-Galdames)


#### Ibilbidearen amaiera

Pobal burdinola (Pobal-Muskiz)

#### Interesa

Etnografia, paisaia, natura

#### Ibilbidearen profila



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundera


Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

## Mapa/Krokisa





Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

### Nola Iritsi

Atxuriaga parkea Galdames udalerrian dago, Atxuriaga/La Aceña auzoaren ondoan, San Pedro (Galdames) eta Arenao (Sopuertatik hurbil) auzoak lotzen dituen toki errepidean.

### Deskribapena

Atxuriaga parkeko aparkalekuaren amaieratik, lurrezko baso-bide batera (antzinako meatze-trenbidearen trazatua) doan bidea hartuko dugu. Lantegi batzuen atzealdetik igaro eta ibilbideko lehenengo tunelean sartuko gara (Villegas). Hori zeharkatzean San Esteban elizaren ikuspegi harrigarria izango dugu: Moro mendiaren oinean altxaturiko eliza. Aurrerago, bideak Malpeña tunelera eramango gaitu; aurrekoa baino luzeagoa eta ilunagoa da, baina argiak ditu. Bertatik irten eta gutxira, antzinako meatze-trenbideko zamatze-lekua ikusiko dugu. Minutu batzuk ibili ondoren, ibarbide sakon batera helduko gara eta, bertan, trenbidearen trazatua maldara egokitzen da, U bat eginez. Bertatik igaro ondoren, bidea Peñas Negraseko ibilbideetarikoa batekin gurutzatzen da (kolore laranjako balizak) eta hori El Pobalerantz jaisten da. Bertatik jarraitu eta ezkerretara sortzen den bidea hartuko dugu, ia 180 graduko bira eginez, eta horrela, eukaliptoen eta pinuen artetik jaitsiko gara, harik eta El Pobaleko zubira iritsi arte. Hori zeharkatu eta ezkerretarantz joango gara, El Pobaleko burdinolaraino.

## IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

### Trazatua

Ibilbidea, hasieran (parkearen barruan) eta amaieran (El Pobalerako jaitsieran), lurrezko bide batetik doa, baina trazatuaren zatirik handienean legarrezko bidea da. Tunel barruko zatietan zementua dago.

### Gurpil-aulkietarako gauza

Bai, baina antzinako trenbidearen trazatutik bakarrik, El Pobalerantz iaitsi barik.

### Norabideko seinaleztapena

Ibilbide osoan ez dago norabideko seinaleztapenik, baina oso erraza da bide berdearen trazatuari jarraitzea.

### Informazioko seinaleztapena

Ibilbide osoan, kasuan kasuko lekuari buruzko informazioa ematen duten panelak daude. Halaber, bidegurutzeen presentziari (basoko igarobideak, ibilgailuen igarobideak, etab.) buruzko informazioa ematen duten kartelak daude.

## ARGAZKIAK

Informazio panela, Villegas tunelaren sarreran.



Ibilbideko atsedenlekuetariko bat.



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

**Baso-bide batekiko bidegurutzeetariko bat.**



**Ibilbideko kilometro-zedarria.**



**El Pobalerako desbideratzea.**



Sustatzailea:

*Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea*

Kontsultorea:

*NK gestión ambiental y cultural S.L.*

Urtea:

2005

**El Pobaleko burdinola.**



## BALIABIDEAK

### Meatze-jardueraren aztarnak

Galdamesen ateratako minerala Sestaoko Labe Garaietara eramateko antzinako trenbidea denez, inguruan meatze eta trenbide iraganaren aztarnak daude: tunelak, mineral zamatze-lekuak, etab.



### Paisaia

Ibilbidean, Somorrostroko haranaren eta horren inguruko mendi batzuen gaineko ikuspegi zabalak dituzten lekuak. Galdameseko mendi batzuetarantz ere ikuspegi bikainak daude.



### Landaredia

Bidearen ondoko landaredia baso atlantikoan egoten dena da: txilarrak, oteak, iratzeak, haritza, lizarrak, hurritzak, gaztainondoak, astigarrak, zumarrak, gurbitza, etab.



### **Meatzen aztarnak**

Ibilbide osoan agerian daude meatze jarduerak paisaian izandako ondorioak; haitzuloak, galeriak, meatze-ezarkuntzen aurriak, plano makurrak, meatze-ahoak eta abar ikusten dira.



## EKIPAMENDUAK

### Atsedenlekua

Atsedenlekua oso handia da eta berorrek okupaturiko lurretan idoi bat eta Tardía nahiz Berango meatzeen aztarnak zeuden; mahaiaik, aulkiak eta erretegiak daude. Atsedenlekuko mutur batean, barrutitik kanpo, idoi txiki bat dago, urbazterreko landarediaz inguratuta (besteak beste, haltzak, sahatsak eta ihiak).



### Haurren jolasak

Atxuriaga parkean haurren jolasekin ekipaturiko zona bat dago.



### Aparkalekua

Atxuriaga parkean aparkaleku handia dago, bertako mutur batean; bizikletak aparkatzeko zona bat ere badago, tabernatxo baten eta komun publiko batzuen ondoan.



### **Aulkiak eta paperontziak**

Ibilbidean zehar, aulkiak eta paperontziak dituzten lekuak daude, eta horiek “Egoteko eremuak” gisa identifikaturik daude.





Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

## ZERBITZUAK

### Ostatuak

Galdameseko Txabarri auzoan udal aterpetxe bat dago.

---

### Tabernak eta jatetxeak

Parkeak taberna bat dauka eta, La Aceña auzoan, El Puente jatetxea dago.

---

### El Pobaleko monumentu multzoa

Barbadun ibaiaren bihurgunetxo batean kokaturik dago, Muskiz udalerrian; Bizkaia osoko industria aurreko multzorik garrantzitsuenetariko bat da. Burdinola XVI. mende hasieran eraiki eta XVIII. mendean handitu zuten. Burdinolarekin batera, olagizonen etxebizitza (jatorrian dorretxe itxurakoa), errota eta ogia egiteko labea daude. Gaur egun, burdinola jendeari irekita dago eta bisitaria XIX. mendeko lantegi-giroan mulgiltzen du.

---

### Garraio publikoa

Bizkaibusen mendeko Encartaciones S.A. autobus-enpresak bi linea ditu (Santurtzi-Balmaseda eta Portugalete-Galdames), eta geraldia egiten ditu ibilbidetik hurbil, bat El Pobaleko burdinolatik hurbil eta bestea Atxuriaga parkearen aurrean.

---

## OHARRAK

Ibilbidea oinez edo mendiko bizikletan egin daiteke, eta gehienek mendiko bizikletan egiten dute. Eskaintzen diren datuak Atxuriagatik El Pobalerako ibilbide linealari buruzkoak dira (joana). Atxuriagarako etorria egiteko, El Pobaletik Bide Berderako malda igo nahi ez bada, autobusa har daiteke El Pobal auzoan.